

FUNTSEZKO ELKARTEA

Funtsezko elkarte, gure elkarte mota erosleekin eta hornitzaileekin izango genukeen harremana izango litzateke. Gure proiektuak funtziona dezan ezinbestekoa dugu beste elkarteekin eta hornitzaileekin aliantzak egitea, enpresak aurrera egiteko beharrezkoak ditugun hainbat jarduera, aterkiak eta banaketak egitea adibidez, gure kabuz ezin ditugulako egin, beraz, aliantzak egin behar ditugu jarduera hauek egiten dituzten enpresa ezberdinekin.



Gure aterki pertsonalizatuak diseinatzeko kontaktuan jarriko gara Paraguas Gomez SI enpresarekin. Enpresa honetan aterkiak ekoizten dituzte eta guk eskatzen dizkiogun ezaugarriak jartzeko aukera izango genuke. Adibidez, silikonazko heldulekua eta diseinu pertsonalizatuak. Enpresa hau aukeratzeko beste arrazoi bat Gipuzkoan bertan dagoela da. Beraz, garraioan ez ditugu gastu handiak izango, gertu baitago. Gainera, bertako ekonomiaren partaide izango ginateke.

Gure web orria guk sortu dezakegu, baina gure web orria kudeatzeko beste pertsona batzuk kontratatu beharko ditugu aurrera begira, adibidez Donostiako Muñagorri enpresa edo Errenteriako Ikuspe enpresa.

Gure produktua salmenta puntu guztietara banatzeko banaketa enpresa batekin jarriko gara kontaktuan, esate baterako Tipsa Irun enpresarekin.

Garrantzitsua izango litzake gure enpresak dirua lortzea proiektua aurrera atera ahal izateko, bereziki proiektuaren hasieran. Horretarako hornitzaile (banku bat izan daiteke) bat beharko dugu, gure proiektua finantzatzen laguntzeko.

Zihara Etxeberria
Kimetz Toledo
Iker Mitxelena
Eneritz Aduriz